EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA



ZUZENEKO BEHAKETAZ HIZKUNTZA-ERABILERA NEURTZEKO METODOLOGIAREN EREDU MATEMATIKOA

LAGINKETA ETA ESTIMAZIOA

Yosu Yurramendi Mendizabal *(Konputazio Zientziak eta Adimen Artifiziala Saila, Euskal Herriko Unibertsitatea)*
Olatz Altuna Zumeta *(Soziolinguistika Klusterra)*

2009ko abendua

Gaien Aurkibidea

1 Sarrera

Euskara zenbat erabiltzen den neurtzeko saiakera ugari egin dira azken urteotan. Batzuk eremu txikietan egin dira: ikastetxeetan edo lantegietan, esate baterako; beste batzuk, ordea, eremu handiagoetan: udalerrietan, eskualdeetan edota Euskal Herri osoan. Saio horien artean, zuzeneko behaketan oinarritutakoak dira gure interesa piztu dutenak. *Zuzeneko behaketa* esaten zaio, izan ere, hiztuna jardun naturalean ari dela, behatzaile batek jardun horri buruzko informazioa jasotzen duelako, inolako interferentziarik gabe.

Jasotako informazioarekin datu-multzoa osatzen da eta, datuen azterketatik, erabilpenaren ideia bat lortzen da. Emaitzak ez dira erabat zehatzak, behatutakoa ez delako beha daitekeen guztia. Hala ere, neurketa horiek ezinbesteko baliabideak dira diagnostiko egokiak egiteko eta euskararen aurrera begirako ildo eraginkorrak zehazteko.

Soziolinguistika Klusterrak, Hizkuntza Politikako Sailburuordetzaren laguntzarekin, ahozko erabilera neurtzeko metodo hauetan sakondu nahi izan du, eragile ezberdinek baliatutako metodologiak bilduz eta aztertuz. Orain arte, metodologia hauetan lagina, gehienetan, datu-bilketa burutzen den ordu kopurura mugatu da, eta neurketak irauten duen denboran jasotzen diren elkarrizketek osatu dute. Horrela sortutako laginetatik ez da, besterik gabe, zehaztasun-mailarik edo errore-tarterik eratortzen. Ezin jakin, beraz, lortutako informazioak zenbaterainoko fidagarritasuna duen.

Oinarrizko eredu formal edo matematiko bat beharko genuke gabezia horri aurre egiteko. Eredu formal horrek modua eman behar liguke bi galdera nagusiri erantzuteko:

- Zenbat elkarrizketa neurtu edo behatu behar dira, jasotako informazioa adierazgarria izan dadin?
- Lortzen den informazioak zein zehaztasun-maila edo errore-tartea du erabilera errealarekiko?

Bi gaiak elkarri lotuta daude, bistan denez.

Egindako lana txosten honetan aurkezteko, honako bide hau jarraitu dugu. Sarreraren ondoren, 2. puntuan, eredu matematikoaren oinarriak azaltzen dira. 3. puntuan, binakako elkarrizketen analisi matematikoa jorratzen da. 4. puntuan, binakako elkarrizketak ez ezik, unibertsoko elkarrizketa guztiak hartzen dira kontuan. Bukatzeko, taulak eta ondorio nagusiak aurkezten dira.

2 Eredu matematikoaren oinarriak

Planteatutako bi galderei zorroztasunez heltzeko, beharrezkoa da testuingurua formalizatzea, hau da, elkarrizketetako hizkuntza-erabilera *eredu matematiko* batez adieraztea.

Lehenik eta behin, aztergai nagusia ondo zedarritzen saiatuko gara. Elkarrizketak dira azterketa-unitatea. Gure ikuspegitik, elkarrizketa bat biren edo gehiagoren artean gertatzen den ahozko harreman linguistikoa da. Datuak biltzean honako arau hauek finkatu ditugu:

- Elkarrizketa guztien iraupena berdintzat hartzen da. Motzak ala luzeak diren, ez da aintzat hartzen. Behatzaileek ez diote erreparatzen elkarrizketen iraupenari.
- Elkarrizketa *bera* behin baizik ez da kontatzen. Horrek esan nahi du hizlaria eta entzuleak pertsona berak baldin badira eta erabilitako hizkuntza aldatzen ez bada, behin bakarrik kontatzen dela elkarrizketa hori. Murriztapen honek garrantzia du formalizazioari begira, izan ere, horrela, gerta litezkeen elkarrizketa guztien kopurua taldeko kideen kopuruaren

araberakoa da, eta denboraren aldagaia alde batera utz daiteke. Parte-hartzaileen artean beste batek hitza hartzeak (parte-hartzaile *aktiboa* aldatzeak) ez du esan nahi beste elkarrizketa bat hasi denik, non-eta ez den hizkuntza aldatzen.

- Elkarrizketak euskaraz ala erdaraz dira. Behatzaileek bi aukera baino ez dituzte elkarrizketa-hizkuntza jasotzeko. Elkarrizketa bereko hizkuntz alternantzia nahasia ez da jasotzen.
- Elkarrizketetako parte-hartzaileen kopurua ez da finkoa: bik edo gehiagok har dezakete parte elkarrizketetan.

Neurtze-arau hauek kontuan hartuta egin da formalizazio-saiakera. *Grafo* bidezko adierazpidea hautatu da giza-sare batean gertatzen diren elkarrizketak errepresentatzeko (ikus 1 irudia). Grafo horretan *erpinak* (nodoak) dira gizataldeko partaideak, eta erpinen arteko *ertzak* (arkuak) partaideen artean gerta litezkeen elkarrizketak.

Gizatalde baten baitako elkarrizketak horrelako grafoen bidez adierazteko, saiatu gara datu-



Irudia 1: Grafo bidezko adierazpidea.

bilketarako ezarritako arauak eredu formalera eramaten. Formalizazio-ahalegin orok berarekin dakar errealitatetik eredu baten baitara egokitu beharra, eta, hortaz, murriztapen edo sinplifikazio batzuk ezinbestean definitu behar dira. Ezarritako murriztapen hauek ez diote, gure ustez, ereduaren orokortasunari eta egokitasunari kalterik egiten.

Murriztapenok deskribatzean saiatu gara, bide batez, datu-bilketan finkatutako arauekin loturak egiten (zerikusi estua baitute) eta grafoen interpretaziorako lagungarriak izan daitezkeen azalpenak ematen.

- Grafoko arkuek ez dute pisurik. Arku *ez-ponderatuak* dira, eta bi erpinen arteko *lotura* baizik ez dute adierazten, hau da, bi norbanakoen arteko elkarrizketa. Pisurik ez izateak elkarrizketen iraupena (edo beste edozein ezaugarri kuantifikagarri) aintzat ez hartzearen baliokidea da. Indar berdinekoak dira guztiak, nahiz eta badakigun, hizkuntza-erabilerari dagokionez, sinplifikazio handia dela.
- Elkarrizketa bera behin bakarrik kontatzen denez, aski da arku bakarra bi erpinen arteko elkarrizketa formalizatzeko (arku gehiago jartzeak elkarrizketa bera behin baino gehiagotan

agertzen dela esan nahiko luke). Grafoak une batean gertatzen diren elkarrizketak adierazten ditu. Bestalde, esan dugu datu-bilketako baldintzetan hizlaria aldatzeak ez duela beste elkarrizketa bat eragiten. Hori horrela, arku *ez-zuzenduak* aski dira elkarrizketak grafoan adierazteko. Bi hasierako sinplifikazio hauen arabera, esan dezakegu, esate baterako, eredu formal honetan minutu bakarreko bost elkarrizketek bost minutuko elkarrizketa batek halako bost balio dutela.

- Arkuei hizkuntzaren etiketa esleitzen zaie, horrela adieraziz zein hizkuntza erabili den elkarrizketa bakoitzean. Arkuen hizkuntza bitarra da: euskara ala erdara. Ez dago beste aukerarik. Biltze-arauetan esan dugunarekin bat etorriz, alternantzia nahasi etengabea ez da errepresentatu grafoan. Adierazpide grafikoan, euskaraz etiketatutako arkuak gorriz adierazten dira, eta erdaraz etiketatutakoak, beltzez.

- Elkarrizketa guztien parte-hartzaileen kopurua (bi, hiru, lau eta abar) ez da berdina izaten. Beraz, grafo klasikoak baino *hipergrafoak* beharko lirateke elkarrizketa mota horiek guztiak eredutu edo formalizatzeko (2 irudia).



Irudia 2: Hipergrafoa. *http://en.wikipedia.org/wiki/File:Hypergraph.gif* helbidetik hartua.

- Hasierako modelizazioan eta analisi matematikoan, elkarrizketa guztiak bi norbanakoen artekoak direla joko dugu. Sinplifikazio handia da, baina hasierako hurbilpen gisa beharrezkoa iruditzen zaigu. Abiapuntu horretan oinarrituta, saiatuko gara aurrerago sinplifikazio hau baztertzen eta eredu konplexuago bat eraikitzen.

- Ezinbestean *lagin-grafo* batekin lan egin beharra dago. Izan ere, binakako elkarrizketak baizik hartzen ez badira ere, ezinezkoa baita errealitatearen argazki osatu bat egitea, batez ere gizataldea txikia ez denean. Asko jota, egin daitekeen gauza bakarra da une batean ondo erreparatu une horretako elkarrizketei, hau da, partzialki ezagutu grafoa, eta ezagutza horretatik abiatuta grafo osoa irudikatu. Ikuspegi estatistiko batetik, denbora batean eta toki jakin batean gertatzen diren elkarrizketei erreparatzea elkarrizketen unibertsotik *lagin* bat hartu eta behatzea da. Laginarekin osatzen den lagin-grafoa grafo osoaren *adierazgarria* izatea nahi da, bere estimazio bat alegia, eta, beraz, ***zorizkoa*** beharko du izan.

Lagina zorizkoa dela esaten denean, esan nahi da unibertsoko binakako elkarrizketa guztiek gertatzeko aukera (probabilitate, zori) berdina dutela behatzaileek erreparatu eta jasotzen dituzten unean eta tokian. Ohartzekoa da, batetik, lagin batean norbanako batek elkarrizketa bat baino gehiagotan har dezakeela parte eta, bestetik, behin elkarrizketa bat kontatuz gero ezin denez berriro kontatu, laginketa *itzulerarik gabekoa* dela.

- Giza-sare batean edozein norbanako ez da taldeko norbanako guztiekin erlazionatzen, azpitalde batekin baizik, batez ere taldea handia denean (*Dunbar*en zenbakia, *http://en.wikipedia.org/wiki/Dunbars number*). Dunbar-en zenbakiak adierazten du zenbat pertsonarekin eduki ditzakeen harreman egonkorrak norbanako batek. Ez da zenbaki zehatza, baina 150eko balioa hartzen da hurbilpen egokitzat.
  Batzuk jende gehiagorekin erlazionatzen dira beste batzuk baino, eta erlazio batzuk maizago gertatzen dira beste batzuk baino, norbanakoaren nortasuna eta bere giza-inguruaren arabera.

2.1 Grafoko ezaugarri esanguratsuenak

Formalizazio bidean, N batez izendatuko dugu unibertsoko elkarrizketa kopurua, eta n batez zorizko laginaren tamaina edo jasotako elkarrizketen kopurua (3 irudia). Elkarrizketa guztiek $\frac{n}{N}$eko probabilitatea (zoria) dute aukeratuak edo erreparatuak izateko.

Laginketaren unitate estatistikoak, beraz, elkarrizketak izango dira, grafoaren N arkuak edo



Irudia 3: N, elkarrizketen unibertsoaren tamaina, eta n, laginarena.

ertzak, alegia.

Praktikan, elkarrizketen unibertsoa zein den ez da ezaguna, ez eta N ere. Baina estatistikoki ezagutza lortzeko nahikoa izaten da handia dela jakitea. Edo bestela, unibertsoaren eredu zehatz batzuen arabera unibertsoa ezaguntzat jo daiteke, eta horren arabera ondorioak atera. Ondorioen ontasuna ereduaren egokitasunari lotuta egongo da.

Elkarrizketen grafo honetan, euskararen erabilera zenbaterainokoa den ezagutzeko, euskarazko eta erdarazko elkarrizketak zenbatzen dira. N_B batez izendatuko dugu euskarazko elkarrizketa-kopurua, eta n_B batez n tamainako laginean euskaraz erreparatutakoak.

4 irudian arku gorriz agertzen dira euskaraz jasotako elkarrizketak eta beltzez erdaraz jasotakoak.

Gizatalde baten euskararen erabilera elkarrizketen unibertsoan euskaraz gertatzen direnen ehunekoa da: $p = \frac{N_B}{N}$. Era berean defini daiteke laginean antzemandakoen ehunekoa: $\hat{p} = \frac{n_B}{n}$.

p ezezaguna da, eta laginaren bitartez kalkulatutako $\hat{p}$-k p horren *estimazio* bat ematen du.

Orain artean definitutako eredu formalean eta aldagaien definizioan aurrera egiteko, badu garrantzirik gizataldeko euskaldunen edo elebidunen jokabideak. Deskribapenaren une honetan beste sinplifikazio bat egin beharrean gaude:

- Gizataldea bitan dago banatuta: A hizkuntza bakarrik ezagutzen dutenak, eleb$A$karrak, eta A eta B hizkuntzak ezagutzen dituztenak, ele$B$idunak. [1]

Ereduan ez dago, beraz, B hizkuntza bakarrik ezagutzen duenik, ez eta hizkuntza baten ezagutza partziala duenik ere. Gure kasuan A erdara da eta B euskara.

Gizataldeko bi azpitaldeen jokabideak garrantzia baduela esaten dugunean esan nahi dugu eleb$A$karrek eleb$A$karrekin (irudian beltzez) eta ele$B$idunekin (irudian gorriz) izan ditzaketen elkarrizketak nolakoak izango diren argi dagoela (erdaraz), baina ele$B$idunen arteko jokabide linguistikoa ez dagoela hain garbi (euskaraz ala erdaraz izan daiteke). Gezi urdin batez adierazten da, 4 irudian, pertsona ele*b*idunen arteko erdarazko elkarrizketa.

Jakina, halako ezagutza lortzeko ezinbestekoa da gizataldearen hizkuntzarekiko ezagutza no-



Irudia 4: Gorriz, pertsona ele$B$idunak eta euskarazko elkarrizketak; beltzez, pertsona eleb$A$karrak eta erdarazko elkarrizketak.

lakoa den jakitea. Zenbait kasutan talde jakin batean ele$B$idunak nortzuk diren jakitea badago; adibidez, talde txikietan, nahiz erabilera ezaguna ez izan.

[1] Anbiguotasun bat sortzen da A eta B letra larriak erabiltzean, azpitalde bat ote den ala azpitalde batek erabiltzen duen hizkuntza, baina korrespondentzia argi eta garbia denez, erdaldunak (elebakarrak) erdaraz (A) eta euskadunak (elebidunak) euskaraz (B) eta erdaraz, ulergarritasunaren mesedetan bere horretan utziko ditugu bi letrak, eta testuinguruaren arabera ulertuko ditugu. Are gehiago A erdaraz bakarrik mintzatzen den azpitaldearen tamaina izango da, eta B bi hizkuntzetan mintza daitekeen azpitaldearena. Gizatalde osoaren partaide kopurua, beraz, $(A + B)$ da.

Aipatutako ikuspegi soziolinguistikotik, norbanakoen jokabidea ezagutzea baino, talde osoarena da ezagutu nahi dena, baita aipatutako azpitalde ele$B$idunarena ere. Ondorioz, grafo osoa laburtu egiten da eta interesa duten azpitaldeen bitartez adierazten den grafo laburra antolatzen da (5 irudia). Grafo labur honetan erpinek azpitaldeak adierazten dituzte, eta bakoitzak bildutako



Irudia 5: Azpitaldeen grafo laburra.

partaideen pisua edo kopurua izango du. Arkuek (elkarrizketak) ere pisu ezberdinekoak izango dira, partaideek emandako ertz-kopuruen batura edo maiztasunen araberakoak. Ondorioz, grafo laburrean ertz batzuk 'bakarrizketa' modukoak dira: azpitalde batek bere buruarekin izan ditzaketenak.

Hasierako grafoaren laburpen hau eginez gero, talde txikietan ez ezik, talde handietan ere, zenbait kasutan, badago jakitea erpinen pisua zein den. Adibidez, estatistika ofizialen bitartez ezaguna izan daiteke gizatalde jakin batean zenbat eleb$A$kar eta zenbat ele$B$idun dagoen. Informazio hau garrantzizkoa izan daiteke laginaren tamaina erabakitzerakoan, aurrerago ikusiko denez.

2.2 Hasierako helburuak, eredu honetan

Gizatalde osoan euskararen erabilera zenbatekoa den ezagutzea da helburu nagusia, eta emaitza horretara indukzioaren bidez hurbiltzen gara, azaldu den legez. Azken emaitzak ezin du izan erabat zehatza. Horrenbestez:

- $\hat{p}$ $p$ren estimazio bat da. Irudiko adibidean: %37.5.
- Estimazio sakonagoa izaten da *zehaztasun-maila* bat gehitzen zaionean $\hat{p}$ren balioari: $\hat{p} \pm \delta$. Honekin esan nahi da $p$ren balioa $(\hat{p} - \delta, \hat{p} + \delta)$ tartean dagoela. Adibidean: $\%37.5 \pm \%12$.
- Baina hori ere ez da ziurra, eta orduan zehaztasun-maila horri ziurtasun- edo *konfiantza-maila* bat gehitu behar zaio: p $(\hat{p}-\delta, \hat{p}+\delta)$ tartean dago α' konfiantzaz. Adibidean: $\%37.5 \pm \%12$ %90eko konfiantzaz. Honek esan nahi du n tamainako laginketa behin eta berriz,

askotan, egingo bagenu %90etan harrapatuko genukeela $p$ren benetako balioa eraikitako balio-tarteetan.

p erabilera-mailarentzat lor daitezkeen zehaztasun- eta konfiantza-mailekin badute zerikusia, jakina, gerta litezkeen elkarrizketa-kopuruak (N) eta behatutakoen kopuruak (n).

Ereduaren argibide nagusiak azaldu ondoren, txosten honen helburu gisa planteatu ditugun bi galderak honela birformula daitezke:

- N (elkarrizketen unibertsoaren tamaina) jakin baterako, δ (zehaztasun-maila) eta α' (konfiantza-maila) finkatuz gero, erabaki euskararen erabilera-mailaren ($p$ren) estimaziorako zenbatekoa izan behar den gutxieneko n balioa (laginaren tamaina, erreparatu beharreko elkarrizketa-kopurua).
- N tamainako elkarrizketen unibertsotik zoriz lortutako n tamainako lagin batean euskararen erabilera-maila ($\hat{p}$) kalkulatu eta α' konfiantza-maila finkatuz gero, erabaki zein den δ zehaztasun-maila (errore-tasa ere esaten zaio: $p \pm \delta$).

Bi problemak lotuta daude, jakina.

3 Binakako elkarrizketak

Bi problema horien ebazpidea binakako elkarrizketen unibertsoan aztertuko dugu lehenbizi, atal honetan. Esan dugu euskararen erabilerari buruz bi azpitalde bereizten direla: erdaldunak (A norbanako eleb$A$karrak) eta euskaldunak (B norbanako ele$B$idunak). Bi hizkuntza dira, beraz, kontuan hartuko direnak: erdara (A) eta euskara (B), eta elkarrizketak bi azpitalde horietako kideen arteko binakakoak izango dira. Eredurik sinpleena da.

Jatorrizko bi galderen erantzuna 3.5 eta 3.6 ataletan aurkezten da. Horren aurretik, erreferentziatzat hartuko ditugun muturreko kasu batzuk landuko ditugu, jatorrizko galderen azalpenean lagungarri izango direlakoan. Muturreko kasu hauek formulatzeko beste hiru aurre-baldintza definitu ditugu. Hauexek:

- Norbanako bakoitzak izan dezakeen elkarrizketa-kopurua finkatu egiten da.
- Euskaldunak euskaldunekin euskaraz mintzatzen dira <u>beti</u>, eta gainontzeko elkarrizketak erdaraz egiten dira.
- A eta B kopuruak ezagunak dira.

Ikusiko dugunez, baldintza hauen guztien menpean ez da laginik behar euskararen erabilera-maila ezagutzeko. Aski izango da elebidunen proportzioa jakitearekin erabilera-proportzioa kalkulatzeko. Bi kasu aztertuko ditugu, muturreko portaerak definituz. Horrela jokatuta, erabilera-proportzioa zedarritzeko aukera izango dugu, eta muga horiek baliagarriak izango zaizkigu laginketaren tamaina kalkulatzeko.

3.1 Azpitaldeak erabat integratuta

A eta B azpitaldeak erabat integratuta egoteak esan nahi du denek denekin komunikatzeko joera dutela, azpitalde berekoekin komunikatzeko (edo, alderantziz, beste azpitaldekoekin komunikatzeko) joera markaturik ez dagoela. Integrazio erabatekoa dago bi azpitaldeen artean, jokabide endogamikoen edo exogamikoen gainetik.

Hori horrela, analisi matematikoari heltzeko, bi lan-hipotesi hartuko ditugu. Lehena: norbanako bakoitza beste gainontzeko guztiekin mintza daiteke (komunikatzeko joera erabatekoa). Bigarrena: norbanako bakoitza norbanako-kopuru jakin batekin mintza daiteke (komunikatzeko joera partziala). Azter ditzagun bi eredu hauek banan-banan.

3.1.1 Komunikatzeko joera erabatekoa

Taldeko norbanako bakoitza beste gainontzeko guztiekin mintza daiteke (6 irudia).

Problema hain sinpleki azalduta, elkarrizketen unibertsoa zenbaki konbinatorio hau da:

$$N = C(A+B,2) = \tfrac{1}{2} \cdot (A+B) \cdot (A+B-1)$$

Beste formula baliokide hau interesgarriagoa da:

$$\begin{aligned} N = C(A+B,2) &= C(A,2) + C(A,1) \cdot C(B,1) + C(B,2) = \\ &= \tfrac{1}{2} \cdot A \cdot (A-1) + A \cdot B + \tfrac{1}{2} \cdot B \cdot (B-1) = \\ &= \tfrac{1}{2} \cdot (A \cdot (A-1) + 2 \cdot A \cdot B + B \cdot (B-1)). \end{aligned}$$

Determinismo honen arabera, populazioaren erabilera-maila (p), binakako elkarrizketei dagokionez, hauxe da:

$$p = \frac{B \cdot (B-1)}{A \cdot (A-1) + 2 \cdot A \cdot B + B \cdot (B-1)}$$

Adibidez: $A = 450, B = 550$ badira, $N = C(1000,2) = 499500$ da, eta $p = 0.3022523 \cong \%30.23$.

Kasu hau beste A eta B balio batzuekin ere kalkula daiteke. Esate baterako, proportzioak



Irudia 6: Grafo laburra: azpitaldeak erabat integratuta.

mantenduz, $A = 45$ eta $B = 55$ badira, erabilera-maila %30 izango da, eta $A = 4500$ eta $B = 5500$ badira, %30.25.

Muturreko erabilera-maila, beraz, A eta B balioen arteko proportzioaren arabera dagoela ematen du.

Gainera, zenbat eta handiagoak izan A eta B, beraien proportzioari eutsiz, p limite baterantz



Irudia 7: $p_B$ri eutsita, p limite baterantz doa $(A+B)$ handitu ahala.

joaten da; hau da, limite horretatik gero eta gertuago dago $(A+B)$ren handitzearekin batera (esango genuke $(A+B)$ 'infiniturantz' joaten denean). Adibidean, $\frac{B}{A+B} = 0.55(\%55)$ dela, jomuga %30.25 da (ikus 7 irudia). Beste proportzio batzuk erabiliz, gauza bera antzeman daiteke. Adibidez, $\frac{B}{A+B} = 0.30(\%30)$ balitz, erabilera-mailaren limitea %9.00 izango litzateke, eta $\frac{B}{A+B} = 0.80(\%80)$ izango balitz, %64.00.

Orokorrean, $p_B = \frac{B}{A+B}$ izanda, limite hori p_B^2 da, ele$B$idunen proportzioaren balio karratua, hain zuzen ere.

$$B = p_B \cdot (A+B) \quad A = (1-p_B)\cdot(A+B)$$
$$p = \frac{B\cdot(B-1)}{A\cdot(A-1)+2\cdot A\cdot B+B\cdot(B-1)}$$
$$p = \frac{(A+B)\cdot p_B^2 - p_B}{(A+B)-1}$$
$$\lim_{(A+B)\to\infty} p = p_B^2$$

8 irudian ikus daiteke nola aldatzen den $p = p_B^2$ limite p_B ezberdinentzako.

Limite horiek ontzat har daitezke gizataldearen ia edozein $(A+B)$ kopururentzat. Izan ere, froga daiteke, adibidez, 26 baino handiagoa izanez gero dagokion probabilitatea limite horretatik 0.01 baino gertuago dagoela.

Limitearen hurbiltasuna:

$$B = p_B \cdot (A+B) \quad A = (1-p_B)\cdot(A+B)$$
$$p_B^2 - \frac{B\cdot(B-1)}{A\cdot(A-1)+2\cdot A\cdot B+B\cdot(B-1)} < \epsilon$$
$$p_B^2 - \frac{(A+B)\cdot p_B^2 - p_B}{(A+B)-1} < \epsilon$$
$$(A+B) > 1 + \frac{p_B\cdot(1-p_B)}{\epsilon}$$

$p_B\cdot(1-p_B)$ren balio handiena $p_B = 0.5$ denean gertatzen da: $(A+B) > 1 + \frac{0.5\cdot0.5}{\epsilon} = 1 + \frac{1}{4\cdot\epsilon}$
Adibidez, $\epsilon = 0.01 \quad (A+B) > 26 \quad \epsilon = 0.001 \quad (A+B) > 251$

Halako behe-borneak guztiz orokorrak dira, baina zehaztu daitezke egoerak finkatuz gero. Adibidez:



Irudia 8: $p$ren bilakaera, $p_B$ren arabera.

$$p_B = 0.20 \;\; \epsilon = 0.01 \text{ baldin badira, } (A+B) > 17. \text{ Ia beti, beraz.}$$
$$p = 0.10 \;\; \epsilon = 0.01 \text{ baldin badira, } (A+B) > 10 \text{ (beti),}$$
$$\text{eta } p_B = 0.05 \;\; \epsilon = 0.01 \text{ baldin badira, } (A+B) > 5 \text{ (beti).}$$

3.1.2 Komunikatzeko joera partziala

Egoera honetan norbanakoen balizko mintzakideen kopurua finkatu egingo dugu, eta M deituko diogu balio horri. Hortaz, taldeko norbanako bakoitza beste gainontzeko Mrekin mintza daiteke ($M \leq (A+B-1)$).

Norbanakoen komunikatzeko gaitasuna murriztu egin da, baina guztiek elkarrizketa-kopuru berdina dute. Grafoko ereduaren arabera, nodo bakoitzak arku-kopuru berdina izango luke, eta grafoak erregular izaten jarraituko luke. Baldintza honek kalkuluak erraztu egiten ditu:

$$N = \tfrac{1}{2} \cdot (A+B) \cdot M \leq \tfrac{1}{2} \cdot (A+B) \cdot (A+B-1) = C(A+B, 2)$$

M eta $(A+B-1)$ balioen arteko proportzioa K ehuneko batez adieraz daiteke: $\frac{M}{A+B-1} = \frac{K}{100}$. ‘Komunikatzeko ahalmena’ deituko diogu Kri. Adibidez, $K = 25$ hartuz gero, norbanako bakoitza gizataldearen %25ekin elkarrizketatu zitekeela ulertuko genuke. Ondorioz, elkarrizketen kopurua proportzio berdinean murriztuko da:

$$N = \tfrac{1}{2}(A+B) \cdot (A+B-1) \cdot \tfrac{K}{100} = C(A+B, 2) \cdot \tfrac{K}{100}$$

Euskarazko elkarrizketak kalkulatzerakoan eragina du, bistan denez, mintzakideak zein azpitaldetakoak (Akoak edo Bkoak) diren. Hori dela eta, Mren banaketa finkatu beharrean gaude. Har dezagun honako hipotesi hau:

- Ele$B$idun bakoitzaren M mintzakideak proportzionalki banatzen dira bi azpitaldeetan.

Honekin esan nahi da edozein norbanakoren mintzakideak bi azpitaldeen tamainaren proportzioan banatzen direla, azpitalde batekoekin elkarrizketatzeko joera markaturik gabe (*orekatua*, nolabait). 3.1.1 ataleko egoera, komunikatzeko joera erabatekoa, honako honen kasu partikular bat besterik ez da ($M = A + B - 1$).

Horren arabera, A azpitaldeko norbanakoen M elkarrizketak honela banatuko dira: A azpitaldekoekin $\frac{A-1}{A+B-1} \cdot M = (A-1) \cdot \frac{K}{100}$ eta Bkoekin $\frac{B}{A+B-1} \cdot M = B \cdot \frac{K}{100}$, eta B azpitaldeko norbanakoena: A azpitaldekoekin $\frac{A}{A+B-1} \cdot M = A \cdot \frac{K}{100}$ eta Bkoekin $\frac{B-1}{A+B-1} \cdot M = B \cdot \frac{K}{100}$.

9 irudiko bi kasuek ez dute zehatz-mehatz betetzen hipotesian planteatutakoa, baina eskuinekoa da bietatik gehien hurbiltzen dena: $A = 4, B = 6$ eta $M = 5$; eta $p = \frac{9}{25} = 0.36$. Kasu idealean, ordea, $N = C(4+6,2) = 45$ da, eta $p = \frac{C(6,2)}{C(10,2)} = \frac{15}{45} \cong \%33.33$. Azpitaldeen tamainak handiagoak direnean, probabilitateen aldetik kasu idealera gehiago hurbiltzen den kasu bat bilatzea ez da zaila.

Populazioaren euskararen erabilera-maila kalkulatzeko oraingoan ere ez da laginik behar, eta M



Irudia 9: Mintzakideen banaketa. Eskuinekoa *orekatuagoa* da.

edo Krekin ez du zerikusirik:

$$p = \frac{\frac{1}{2} \cdot B \cdot (B-1) \cdot \frac{K}{100}}{\frac{1}{2} \cdot A \cdot (A-1) \cdot \frac{K}{100} + A \cdot B \cdot \frac{K}{100} + \frac{1}{2} \cdot B \cdot (B-1) \cdot \frac{K}{100}} = \frac{B \cdot (B-1)}{A \cdot (A-1) + 2 \cdot A \cdot B + B \cdot (B-1)} = p_B^2$$

Honenbestez, komunikatzeko joera partziala izanik ere, elkarrizketak modu orekatuan banatzen badira azpitaldeen artean, $p = p_B^2$ betetzen da.

3.2 Azpitaldeak erabat desintegratuta

Esango dugu A eta B azpitaldeak erabat desintegratuta daudela elkarrizketa guztiak azpitalde barrukoak badira eta ez badago elkarrizketarik azpitaldeen artean: ele$B$idunak elebidunekin eta eleb$A$karrak elebakarrekin mintzo dira. Azpitaldeak 'itxiak' dira.

Aurreko ereduan, azpitaldeak integratuta zeudela, egindako sinplifikazioei eutsiko diegu:

- Norbanako guztiak norbanako-kopuru berdinarekin erlazionatzen dira.
- Euskaldunak euskaldunekin euskaraz mintzatzen dira <u>beti</u>, eta gainontzeko elkarrizketak erdaraz egiten dira.

- A eta B kopuruak ezagunak dira.

Bi lan-eredu definituko ditugu honakoan ere. Lehena: norbanako bakoitza (bere azpitaldeko) beste gainontzeko guztiekin mintza daiteke (komunikatzeko joera erabatekoa). Bigarrena: norbanako bakoitza (bere azpitaldeko) norbanako-kopuru jakin batekin mintza daiteke (komunikatzeko joera partziala).

3.2.1 Komunikatzeko joera erabatekoa

Eredu honetan, taldeko norbanako bakoitza bere azpitaldeko gainontzekoekin mintza daiteke. Kontuan hartu behar da, ordea, mintzakide-kopurua ez dela berdina izango bi azpitaldeetan, bien tamainak, A eta B, berdinak ez badira behintzat:

$$N = C(A,2) + C(B,2) = \frac{1}{2} \cdot A \cdot (A-1) + \frac{1}{2} \cdot B \cdot (B-1)) = C(A+B,2) - A \cdot B$$

Kasu honetan erabilera-maila honelaxe kalkulatzen da:

$$p = \frac{B \cdot (B-1)}{A \cdot (A-1) + B \cdot (B-1)}$$

Har ditzagun honakoan ere $A = 450, B = 550$ balioak adibide gisa. Kasu honetan $N = C(450,2) + C(550,2) = 252000$ da, eta $p = 0.5991071 \cong \%59.91$.

Ohartzekoa da azpitaldeen arteko integrazioa erabatekoa zen kasuarekin alderatuz gero, erabilera-



Irudia 10: Grafo laburra: azpitaldeak erabat desintegratuta.

maila beti izango dela handiagoa, kalkulua egitean proportzioaren izendatzailea txikiagoa delako; lehen, $p = \frac{B \cdot (B-1)}{A \cdot (A-1) + 2 \cdot A \cdot B + B \cdot (B-1)}$; orain, $p = \frac{B \cdot (B-1)}{A \cdot (A-1) + B \cdot (B-1)}$.

Muturreko kasu honetan ere beste A eta B kopuru batzuekin kalkula daiteke erabilera-maila, beren arteko proportzioari eutsiz. Esate baterako, $A = 45$ eta $B = 55$ badira, erabilera-maila %60 izango da , eta $A = 4500$ eta $B = 5500$ badira, %59.90. Muturreko kasu honen erabilera-maila, beraz, A eta Bren arteko proportzioaren arabera dago.

Beste proportzio batzuekin ere gauza bera gertatzen da, hots, erabilera-mailak limite jakin bat du. Adibidez, $p_B = 0.30$ (%30) balitz, erabilera-mailaren limitea %15.52 izango litzateke, eta



Irudia 11: $p_B$ri eutsita, p limite baterantz doa $(A+B)$ handitu ahala.

$p_B = 0.80$ (%80) izango balitz, %94.12. Edozein p_B proportziotarako $p$ren konbergentzia bat dago, 3.1 ataleko muturreko kasuan bezalaxe. Zenbat eta handiagoak izan A eta B, beraien arteko proportzioari eutsiz gero, orduan eta gertuago dago p limite jakin batetik: $p_B = \frac{B}{A+B}$ izanda, muga hori $\frac{p_B^2}{1-2 \cdot p_B \cdot (1-p_B)}$ da.

$$B = p_B \cdot (A+B) \quad A = (1-p_B) \cdot (A+B)$$
$$p = \frac{B \cdot (B-1)}{A \cdot (A-1) + B \cdot (B-1)}$$
$$p = \frac{(A+B) \cdot p_B^2 - p_B}{2 \cdot (A+B) \cdot p_B^2 - 2 \cdot (A+B)) \cdot p_B + (A+B) - 1}$$
$$\lim_{(A+B) \to \infty} p = \frac{p_B^2}{1-2 \cdot p_B \cdot (1-p_B)}$$

Adibidean, $p_B = 0.55$ (%55)) dela, limitea %59.90 da.

12 irudian p_B ezberdinentzako limitea azaltzen da.

Gizataldeek ez dute zertan handiak izan limite hau praktikoki erabili ahal izateko, azken batean, $(A+B) > 27$) nahikoa baita balio horretatik gutxienez %1 (0.01)era egoteko:

$$B = p_B \cdot (A+B) \quad A = (1-p_B) \cdot (A+B)$$
$$\frac{p_B^2}{2 \cdot p_B^2 - 2 \cdot p_B + 1} - \frac{B \cdot (B-1)}{A \cdot (A-1) + B \cdot (B-1)} < \epsilon$$
$$\frac{p_B^2}{2 \cdot p_B^2 - 2 \cdot p_B + 1} - \frac{(A+B) \cdot p_B^2 - p_B}{2 \cdot (A+B) \cdot p_B^2 - 2 \cdot (A+B)) \cdot p_B + (A+B) - 1} < \epsilon$$
$$(A+B) > \frac{1}{2 \cdot p_B^2 - 2 \cdot p_B + 1} + \frac{2 \cdot p_B^3 - 3 \cdot p_B^2 + p_B}{(2 \cdot p_B^2 - 2 \cdot p_B + 1)^2} \cdot \frac{1}{\epsilon}$$

Adibidez, $\epsilon = 0.01$ hartuz gero, $(A+B) > 26$ ateratzen da, eta $\epsilon = 0.001$ekin $(A+B) > 251$, azpitaldeak integratuta zeuden muturreko kasuan bezalaxe.



Irudia 12: $p$ren bilakaera, $p_B$ren arabera.

3.2.2 Komunikatzeko joera partziala

Taldeko partaide bakoitza bere azpitaldeko Mrekin bakarrik mintza daiteke: $M \leq min(A, B)-1$. Kasu honetan elkarrizketa kopurua hau da:

$$N = \frac{1}{2} \cdot A \cdot M + \frac{1}{2} \cdot B \cdot M$$

Alabaina, lehen bezala, Mk ez du eraginik erabilera-tasaren balioan:

$$p = \frac{\frac{1}{2} \cdot B \cdot M}{\frac{1}{2} \cdot A \cdot M + \frac{1}{2} \cdot B \cdot M} = \frac{B}{A+B} = p_B$$

13. irudian p_B ezberdinentzako limitea azaltzen da. Hemen nabarmendu behar dena da, A eta B ezberdinak izanez gero, nahiz M bientzat berdina izan, K, komunikatzeko ahalmena, oso ezberdina izan daitekeela. Izan ere, eleb$A$karren azpitaldean $K_A = \frac{M}{A-1} \cdot 100$ izango da, eta ele$B$idunenean $K_B = \frac{M}{B-1} \cdot 100$.

3.3 Zenbait ohar

3.3.1 Probabilitateen araberako ikuspegia

Euskararen erabilera-mailari mugak jartzeko, ikusi berri dugunez, nahikoa da p_A ($\frac{A}{A+B}$) eta p_B ($\frac{B}{A+B}$) balioen arteko proportzioa ezagutzea. Are gehiago, $(A+B)$ tamainak ez du handia izan behar proportzio horiek jakinda erabilera-mailaren limitea nahiko zehatza izan dadin. Hori horrela da bai A eta B azpitaldeak integratuta daudenean, bai desintegratuta daudenean.

Integrazio-maila erabatekoa denean, eta norbanako bakoitzak komunikatzeko duen jokabidea orekatua bada (bere azpitaldekoenganako joera markaturik gabe, ezta beste azpitaldekoenganakoa ere), limitea p_B^2 da. Honek badu azalpen erraz bat probabilitateen bitartez: gizataldetik bi norbanako zori hutsez aukeratuko bagenitu, eta $p_B = \frac{B}{A+B}$ baldin bada ele$B$idun bat aukeratzeko probabilitatea, biak elebidunak izateko probabilitatea (edo, ezarri ditugun baldintzen



Irudia 13: $p$ren bilakaera, $p_B$ren arabera, azpitaldeak desintegratuta, eta komunikatzeko joera partziala, baina denentzat berdina, denean.

arabera, elkarrizketa euskaraz izatekoa) p_B^2 izango litzateke. Formularen irakurketan bi zorizko hautaketak *independente*tzat hartzen dira (lehenengo hautaketak ez du eraginik bigarren hautaketan).

Emaitza hau hobeto ulertzearren, berriro azpimarratuko dugu hasieratik ibilitako bidea.

Gizataldearen banaketa bitarra ezaguna bada (A eta B ezagunak) Nren handitasuna antzeman daiteke, praktikoki karratuaren erlazioa betetzen baitu ($N = C(A+B,2) = \frac{1}{2} \cdot (A+B) \cdot (A+B-1) \cong \frac{1}{2} \cdot (A+B)^2$, edo bestela $\frac{1}{2} \cdot (A+B)^2 \cdot \frac{K}{100}$). Gizataldea handia ez bada ere, elkarrizketa-kopurua oso handia gerta daiteke, eta kalkuluetarako infinitutzat hartu ($A = 450$, $B = 550$ azpitaldeek $N = 499500$ binakako elkarrizketa eman dezakete, eta $K = 10$ bada ere, $N = 49950$ balioak oso handia izaten jarraitzen du). Dena dela, Nk ez du handia izan behar lortutako formula ia akatsik egin gabe erabili ahal izatzeko.

Probabilitate-kalkuluaren ikuspegitik esan daiteke $A = 450$ bola beltz eta $B = 550$ bola gorri dituen kutxa batetik *itzuli gabeko* bi ateralditan bi gorri (bi euskaldun behar direnez elkarrizketa bat euskaraz lortzeko) suertatzeko probabilitatea $\frac{550}{1000} \cdot \frac{549}{999} = 0.3022523 \cong 0.3023$ dela. Populazioa handia izanda, ez du garrantzi praktikorik bolak itzultzeak ala ez. Hortaz, ateratako lehenengo bola kutxara *itzulita*, biak gorriak suertatzeko probabilitatea: $\frac{550}{1000} \cdot \frac{550}{1000} = 0.3025 \cong 0.3023$ da. Ateratako lehenengo bola kutxara ez itzulita ere, horrek ez du eragin praktikorik bigarren ateraldiko emaitzan.

N handia izanez gero, tamaina zehatzak axolik ez duenez, ez da beharrezkoa A eta Bren tamainak ezagutzea, beren arteko proportzioak baizik. Azpitaldeen kopuru absolutuen ordez erlatiboak ezagutzen direnean, adibidez, $A = \%45$ eta $B = \%55$, populazioa infinitutzat hartzen da. Halaber, gehienezko euskarazko elkarrizketen probabilitatea kalkulatzerakoan ere antzeko arrazoibidea erabiltzen da: $0.55 \cdot 0.55 = 0.3025$, eta antzeko emaitza lortzen, beraz.

Halako probabilitate-kalkuluak zuzenean egiten direnean, azpitaldeen tamainari erreparatu gabe alegia, atzean dagoen sinplifikazioa da norbanako guztiak komunikazio orekatu bat dutela beste norbanakoekin.

Azpitaldeak erabat desintegratuta daudenean, norbanakoen komunikatzeko joera erabatekoa dela joz gero, emaitzen ulerkera zailagoa da probabilitateen ikuspegitik. Kontuan hartu behar da, orokorrean, azpitalde batekoek komunikatzeko gaitasun handiagoa dutela beste azpitaldekoek baino, beren azpitaldea handiagoa delako. Beraz, azpitalde handiko norbanakoek elkarrizketa gehiagotan parte hartzeko aukera dute, eta elkarrizketak unitate estatistikoak izanda, hautatuak izateko probabilitate handiagoa dute (guztienak ez dira berdinak, uniformetasunik ez dago norbanakoengan). Ondorioz, ez da hain zuzena p eta p_B probabilitateen arteko erlazioa. Salbuespena, jakina, $A = B$ kasuan gertatzen da. Kasu horretan, bi azpitaldekoek norbanako-kopuru berdinarekin komunikatzeko gaitasuna dutela, $p_B = 0.50$ eta $p = p_B = 0.50$ da.

Aldiz, eredu desintegratuan, komunikatzeko joera partziala eta guztientzat berdina izateak esan nahi du, probabilitatearen ikuspegitik, norbanako guztiek aukeratuak izateko probabilitate berdina dutenez (elkarrizketetan parte hartzeko gaitasun bera dutelako), elkarrizketa bat euskaraz gertatzeko probabilitatea eta euskaldun bat (ele$B$idun) hautatua izateko probabilitatea berdinak direla. Behin euskaldun bat hautatuz gero, 'beti' euskaraz mintzatzen denez (euskaldunak euskaldunekin baizik ez dira mintzatzen), beste edozeinekin izango duen elkarrizketa euskaraz izango da.

3.3.2 Euskaldunak euskaldunekin ez dira 'beti' mintzatzen euskaraz

Euskararen erabilera-maila muturreko egoerak definituz zedarritu dugu. Muturreko egoera horietarako honako sinplifikazio hau erabili dugu: euskaldunak euskaraz mintzatzen dira 'beti' euskaldunekin. Beste modu batera esanda: euskaldunek euskararekiko duten leialtasuna erabatekoa da. Errealitatera hurbiltzeko, beharrezkoa da baldintza gogor eta irreal hori leuntzea.

Leialtasuna erabatekoa ez, partziala izaki, beharrezkoa da *leialtasun-maila*ren kontzeptua analisi honetara ekartzea. Xabier Isasik eta Arantxa Iriartek (BAT aldizkariaren 28. alean, 54. orria, 1998) Txillardegiren eredu matematikoa aztertzean, honela definitzen dute *leialtasuna*: '*zehaztutako giza talde jakineko elebidunen artean B hizkuntza erabiltzeko batenaz besteko joera*'. Batez besteko hori norbanako guztiei aplikatuko zaie eredu honetan.

Horrela formulatuko dugu *leialtasun-maila*, L, balioa:

- Euskaldunek euskaldunekin euskaraz izaten dituzten elkarrizketak ehuneko L dira.

Leialtasun-maila ez bada erabatekoa ($L < 100$), oro har, euskararen erabilera-maila txikiagoa izango da.

Sinplifikazio bat leundu egin dugu, baina hala ere zenbakitan adierazten dugu, eta moldaketa honek sinplifikazio bat izaten jarraitzen du. Lehengo 'beti'ko kasua, orain kasu partikular bat besterik ez da: $L = 100$.

Orain $N_B = B \cdot (B-1) \cdot \frac{L}{100}$ da eta, beraz, $p = p_0 \cdot \frac{L}{100}$, non p_0 aurreko analisietan (leialtasun-maila erabatekoa zenekoetan) aipatutako p balioa den (ikus 14 irudia). Ohartzekoa da: $p \leq p_0$.

Leialtasun-maila (L) tipikotzat edo estandartzat har daiteke, eta, orokorra dela kontsideratuz, norbanako guztiei aplikatu. Matematikoki: $p_B = p_{B0} \cdot \sqrt{\frac{L}{100}}$, non p_{B0} aurreko analisietan aipatutako p_B balioa den, eta horrela $p = p_B^2$ izaten jarraitzen du.

Noski, errealitatean lagin baten bitartez neurtzen den $\hat{p}$ balioa p erabilera-mailaren estimazioa da, eta tartean egon daitekeen L ehunekoaren balioa ez da ezaguna izaten.



Irudia 14: $p$ren bilakaera, $p_B$ren arabera, L leialtasun-maila 70 dela.

3.3.3 Gizarteratze-maila

Soziolinguistikaren arloan, *gizarteratze-maila* edo *gizarteratze-tasa* landu izan da lehen ere. Adibidez: '*Txillardegiren hitzetan gizarteratze-tasa euskaldunen hizkuntza harremanen sareetara bildutako erdaldunen proportzioa da. Neurri batean gure Txepetxen trinkoketa datorkigu gogora, anisotropiaren adierazlea izan daiteke. Euskaldunok zein neurritan bizi diren beraien artean eta zenbat erdaldun erakartzen duten haien hizkuntza harremanen sareetara*' (Isasi eta Iriarte, BAT aldizkariaren 28. alean, 58. orria, 1998). 3.1 eta 3.2 ataletako analisietan lau muturreko egoera landu dira: azpitaldeen arteko integrazio-mailak (erabat integratuta ala erabat desintegratuta) eta norbanakoen komunikazio-joerak (erabatekoa ala partziala eta orekatua) konbinatuz sortzen diren egoerak, hain zuzen ere. Lau kasu horietan, probabilitate-azterketak argia erakutsi digu, eta euskararen erabilera-mailari nolabaiteko bi borne (goi- eta behe-borneak) jarri dizkiogu. Esan dezakegu errealitatea bi mutur horien artekoa dela.

Muturreko bi kasu mota izan dira aztertuak eta biak dira adierazgarriak hizkuntza gizarteratzeko ereduei gagozkiela. Alde batetik, bi azpitaldeen arteko komunikazioa orekatua denean, bi hizkuntzen gehieneko gizarteratzea adierazten da. Kasu honetan, euskararen erabilera-maila p_B^2 da (kontuan hartu gabe leialtasun-maila). Beste aldetik, bi azpitaldeak erabat bereizita daudenean, bi hizkuntzen gutxieneko gizarteratzea adierazten da. Honako honetan euskararen erabilera-maila p_B edo $\frac{p_B^2}{1-2\cdot p_B\cdot(1-p_B)}$ da.

$$p_B^2 \leq p_B \text{ eta } p_B^2 \leq \frac{p_B^2}{1-2\cdot p_B\cdot(1-p_B)}$$

Ondorioa argi eta garbi azaltzen zaigu: baldintza horietan, *bi azpitaldeen komunikazioa erabat orekatuta dagoenean euskararen erabilera txikiagoa da, bi azpitaldeak beren barrurantz 'itxita' daudenean baino.*

15 irudiko adibidean gizarteratze-maila ezberdinak irudikatzen dira. Komunikatze-maila bat ezarriz gero ($M = 3$; hau da, $K = \frac{M}{A+B-1} = \frac{3}{9} = \%33.33$) irudikatuak diren kasuek erakusten dute, ezkerretik eskuinera, bi azpitalde desintegratu (1.a), endogamiarako joera ez oso markatua (2.a), gizarteratze orekatua (3.a) eta joera exogamikoa (4.a). Erabilera-mailak beheranzko joera

du 1.tik 4.era.

Muturreko kasu hauek ereduen bitartez azter daitezke:



Irudia 15: Gizarteratze-maila desberdinak, $M = 3$ baliorako.

$N = (A + B) \cdot M \cdot \frac{1}{2} \quad p_B = \frac{B}{A+B} = \frac{B \cdot M}{2 \cdot N} \quad p = \frac{N_B}{N}$

- $A \leq B$ denean ($p_B \geq 0.50$):
  - $M \leq B$ bada: $N_B = N - A \cdot M \quad p = \frac{B-A}{B+A} = 2 \cdot (p_B - 0.5)$.
  - $M > B$ bada: $N = A \cdot B + A \cdot \frac{M-B}{2} + B \cdot \frac{M-A}{2} \equiv (A + B) \cdot M \cdot \frac{1}{2} \quad p = \frac{B \cdot (M-A)}{(A+B) \cdot M} = p_B \cdot (1 - \frac{A}{M}) \quad \frac{1}{2} \cdot p_B \leq p \leq p_B$
- $A > B$ denean ($p_B < 0.50$):
  - $M \leq A$ bada: $p = 0$.
  - $M > A$ bada: $p = \frac{A \cdot (M-B)}{(A+B) \cdot M} = (1 - p_B) \cdot (1 - \frac{B}{M}) \quad \frac{1}{2} \cdot (1 - p_B) \leq p \leq (1 - p_B)$

Praktikan gizarteratze-maila zein den aldez aurretik erabakitzea ez da zeregin erraza, gizataldearen araberakoa izango da-eta (hiria, herria, lantegia, eta abar).

3.4 Laginketaren problematika

Hasieran aipatu dira zein diren elkar lotuta dauden laginketaren bi problema nagusiak: euskararen erabilera-mailaren ($p$ren) estimaziorako zenbatekoa izan behar den gutxieneko laginaren tamaina (n), eta laginaren n tamaina eta konfiantza-maila bat finkatuz gero zein den lortutako euskararen erabilera-mailaren ($\hat{p}$ren) errore-tasa.

Bada bi horien aurretik argitu beharreko beste problema bat: laginketa itzuleraduna da ala itzulera gabekoa. Esan nahi da, ea zoriz hartzen den laginean erreparatzen diren elkarrizketak errepika daitezkeen ala ez.

Lehendabizi azken problema honi egingo diogu aurre, eta, gero, beste aurreneko biak ebazteko bidea zabalduko dugu.

Ez du ematen elkarrizketa berari behin baino gehiagotan erreparatzea egokia denik euskararen erabilera-maila neurtzeko. Elkarrizketen unibertsoa handia denean arazo bat izan daiteke errepikatze ahal horri ekiditea, baina azalduko dugu kasu horretan errepikatzeak ez duela garrantzi praktiko handirik, besteak beste errepikatzea zaila gertatzen delako.

Elkarrizketen itzulera gabeko laginketa zoriz egiten bada N elkarrizketen unibertsoan (N_B dira euskaraz, proportzioz $p = \frac{N_B}{N}$, beraz), n elkarrizketari erreparatuz (n_B dira euskaraz, proportzioz $\hat{p} = \frac{n_B}{n}$), berez, euskarazko elkarrizketen kopurua probabilitate-lege *hipergeometrikoa*ren arabera lortzen da. Zenbaki konbinatorioak erabiliz hauxe da bere formula:

$$Pr(n_B = k) = \frac{C(N_B,k) \cdot C(N-N_B,n-k)}{C(N,n)}$$

Adibidea: N, N_B eta n ezagututa ($N = 16$, $N_B = 5$ $p = \frac{N_B}{N} = 0.3125$ (%31.25) $n = 8$) kalkula daitezke lege hipergeometrikoaren probabilitateak:

n_B	0	1	2	3	4	5
$\hat{p}$	0.0000	**0.1250**	**0.2500**	**0.3750**	**0.5000**	0.6250
$\hat{p}$	%0.00	**%12.50**	**%25.00**	**%37.50**	**%50.00**	%62.50
Probb.	0.0128	**0.0128**	**0.3590**	**0.3590**	**0.0128**	0.0128

Honen bitartez esan dezakegu $n = 8$ tamainako lagin bat hartuz gero, laginean aurkituko den euskara-erabilera 0.125 (%12.50) eta 0.500 (%50.00) bitartekoa (0.3125 ± 0.1875 edo $\%31.25 \pm \%18.75$) izango dela %97.44 ($0.9744 = 0.0128 + 0.3590 + 0.3590 + 0.0128$) konfiantzaz.

N handia bada eta N_B ez oso txikia, lege hipergeometrikoaren probabilitateak lege *binomiala*renen bitartez kalkula daitezke; hau da, itzulera gabeko laginketa itzulera duen laginketatzat har daiteke (unitateak *independente*ki hartuko balira bezala) kalkuluetan oso akats txikia eginaz. Lege binomialaren kalkuluak formula honen bitartez egiten dira:

$$Pr(n_B = k) = C(n,k) \cdot p^k \cdot (1-p)^{n-k}$$

Adibidea: Probabilitate-banaketa hipergeometrikoa eta binomiala kalkulatuz gero, $N = 1200$ eta $N_B = 420$ ($p = \frac{N_B}{N} = \frac{420}{1200} = 0.35$), eta $n = 100$ izanda, argi geratzen da beren hurbiltasuna:

n_B	26	27	28	29	30	31	32	33	34	35
$\hat{p}$	0.26	0.27	0.28	0.29	0.30	0.31	0.32	0.33	0.34	**0.35**
Prob.hiperg.	0.012	0.019	0.027	0.038	0.049	0.061	0.071	0.080	0.086	0.087
Prob.binom.	0.014	0.021	0.029	0.039	0.049	0.060	0.070	0.077	0.082	0.083

n_B	36	37	38	39	40	41	42	43	44	
$\hat{p}$	0.36	0.37	0.38	0.39	0.40	0.41	0.42	0.43	0.44	Σ
Prob.hiperg.	0.085	0.078	0.069	0.059	0.047	0.036	0.027	0.019	0.013	0.963
Prob.binom.	0.081	0.076	0.067	0.058	0.047	0.037	0.028	0.021	0.014	0.953

Esan daiteke laginaren euskararen-erabilera 0.26 eta 0.44 bitartean (0.35 ± 0.09) suertatuko dela, gutxi gorabehera %95eko konfiantzaz.

Beraz, N handia denean laginketa itzulera gabekoa izan ala ez izan, kalkuluen ikuspegitik, ez da garrantzitsua. Beste modu baten esanda, proportzioa kalkulatzeko berdin da elkarrizketa jakin bati behin baino gehiagotan zoriz erreparatu ahal izatea.

N handia izanda, n txikia ez denean (erreferentziatzat hartzen da $n > 25$) eta p ez oso handia, ezta oso txikia ere (erreferentzitzat hartzen da $n \cdot p > 5$ eta $n \cdot (1-p) > 5$) probabilitate-lege binomiala probabilitate-lege normal edo gausstarraren bitartez kalkula daiteke.

Aurreko adibide bera: Lege binomialaren probabilitateak (hipergeometrikoaren oso antzekoak gertatu direnak) $p = 0.35$ eta $n = 100$ izanda, lege normalaren bitartez hurbiltzean bere bi parametrotzat bi zenbaki hauek $\mu = n \cdot p = 35$ eta $\sigma^2 = n \cdot p \cdot (1-p) = 12.25$ hartzen badira:

n_B $\hat{p}$	26 0.26	27 0.27	28 0.28	29 0.29	30 0.30	31 0.31	32 0.32	33 0.33	34 0.34	35 0.35
Prob.binom.	0.014	0.021	0.029	0.039	0.049	0.060	0.070	0.077	0.082	0.083
Prob.norm.	0.014	0.021	0.029	0.038	0.048	0.059	0.069	0.076	0.082	0.083

n_B $\hat{p}$	36 0.36	37 0.37	38 0.38	39 0.39	40 0.40	41 0.41	42 0.42	43 0.43	44 0.44	Σ
Prob.binom.	0.081	0.076	0.067	0.058	0.047	0.037	0.028	0.021	0.014	0.953
Prob.norm.	0.082	0.076	0.069	0.059	0.048	0.038	0.029	0.021	0.014	0.955

Hurbilketa hau egiteko $n_B$ren balio diskretu bakoitza unitate bateko zabalera duen tartetzat hartzen da. Esate baterako, lege binomialak $n_B = 30$ balioari 0.049 probabilitatea esleitzen dio, eta lege normalak 0.048 probabilitatea $[29.5, 30.5]$ balio-tarteari. Lege normala zenbaki erreal guztien multzoaren gainean definitzen da (lege binomiala eta hipergeometrikoa, aldiz, diskretuak dira eta zenbaki arrunten gainean definitzen dira). Horrek badu bere abantaila: lege normalaren bitartez erraz kalkula daitezke $\hat{p}$rentzako balio-tarteak, aldez aurretik konfiantza-maila ezarriz gero. Adibidez, kalkulatua izan da 0.26 eta 0.44 balio-tarteari ($[0.26, 0.44]$, 0.35 ± 0.09) gutxi gorabehera %95-eko konfiantza-maila dagokiola, hau da, $0.35 \pm 1.96 \cdot \sqrt{\frac{0.35 \cdot 0.65}{100}}$, 1.96 balioa %95-eko konfiantza-mailari dagokion balio *normala*, baina lege bera aplikatuz esan daiteke %99-eko konfiantza-mailari dagokion balio *normala* 2.575 balioa dela, eta, beraz, laginean gertatuko den euskara-erabilera $0.35 \pm 2.575 \cdot \sqrt{\frac{0.35 \cdot 0.65}{100}}$ izango dela, hau da, (0.35 ± 0.12), beste inolako hausnarketarik eta kalkulurik egin behar gabe.

N handia ez denean, ordea, hurbilketa binomiala ez da bidezkoa. Hala ere, N txikia ez izanda ere, probabilitate-lege hipergeometrikoa lege normalaren bitartez hurbil daiteke. Lege hipergeometrikoaren bariantza lege binomialarena denez faktore biderkagai bat ezik, lege normalaren hurbilketan faktore hau ere hartzen da kontuan. Bariantzan parte hartzen duen delako faktore hori $\frac{N-n}{N-1}$ da.

Adibidea: $N = 400$ eta $N_B = 140$ ($p = \frac{N_B}{N} = \frac{140}{400} = 0.35$), eta $n = 100$

n_B $\hat{p}$	26 0.26	27 0.27	28 0.28	29 0.29	30 0.30	31 0.31	32 0.32	33 0.33	34 0.34	35 0.35
Prob.hiper.	0.009	0.015	0.023	0.034	0.047	0.061	0.075	0.086	0.094	0.096
Prob.norm.	0.009	0.015	0.023	0.034	0.047	0.060	0.074	0.086	0.093	0.096

n_B $\hat{p}$	36 0.36	37 0.37	38 0.38	39 0.39	40 0.40	41 0.41	42 0.42	43 0.43	44 0.44	Σ
Prob.hiper.	0.093	0.085	0.073	0.060	0.046	0.034	0.023	0.015	0.009	0.978
Prob.norm.	0.093	0.086	0.074	0.060	0.047	0.034	0.023	0.015	0.009	0.978

Aurreko bidean, ezagunak izanda N, N_B ($p = \frac{N_B}{N}$, euskararen erabilera, beraz) eta n, jakin daiteke probabilitate-hizkera erabiliz (konfiantza-maila) zein izango den $\hat{p}$ balioa gutxi gorabehera, zehaztasun-maila batez. Laginketaren bi problema nagusiak alderantzizko norabidean daude: N_B eta n ezezagunak izanda (p, beraz), konfiantza- eta zehaztasun-mailak finkatuz gero, jakin daiteke zein diren gutxieneko n laginaren tamaina, eta erreparatutako $n_B$ren ezagutzaren bitartez ($\hat{p}$, beraz) $p$ren gutxi gorabeherako balioa (estimazioa, $\hat{p}$ eta errore-tasa edo zehaztasun-maila).

3.5 Laginaren tamaina

Euskarazko p erabilera-maila ezezaguna denean, n tamainako zorizko lagin batez estimatzen da. Estimazioa zehatzagoa izan dadin n elkarrizketari erreparatzen zaie, ea erdaraz ala euskaraz egin diren, eta hor gertatzen den proportzioak balio du $p$ren delako estimazio hori egiteko ($\hat{p}$). Estimazioaren kalitatea, $n$rekin lotuta egoteaz gain (zenbat eta handiagoa den n, orduan eta hobea da laginaren kalitatea), bi alorretan islatzen da: estimaziorako nahi den α' *konfiantza-maila*, eta estimazioak izango duen δ *zehaztasun-maila*. Gakoa da, zehaztasun-maila jakin baterako eta konfiantza-maila baterako, zenbateko lagina jaso behar den erabakitzea: gutxiegi hartuz gero, zehaztasun- edota konfiantza-maila txikiak lortuko dira, eta gehiegi hartuz gero, garestiegi gertatuko da.

Aurreko atalean ikusi denez, N handia denean eta $n > 25$, probabilitate-lege normala erabil daiteke kalkuluetan oso akats txikiak eginez, eta orduan laginketa itzulera gabekoa ala itzuleraduna den jakiteak ez du garrantzi handirik kalkuluetan. N handia ez denean, aldiz, $n > 25$ bada, probabilitate-lege normala erabil daiteke ere, baina itzulera gabeko laginketari zor zaion faktore bat hartu behar da kontuan.

Beste aldetik, oso txikia ez den gizatalde batean elkarrizketen unibertsoa handia izango da. Esate baterako, 25 norbanako duen gizatalde batean guztira binakako $C(25, 2) = 300$ elkarrizketa izan daitezke, komunikatzeko ahalmena $K = 100$ baldin bada, eta 180 elkarrizketa, $K = 60$ bada; baina, hirunakako, launakako eta abarnakako elkarrizketak ere kontutan hartu behar dira, eta hauek guztiak binakakoak beste dira gutxi gorabehera, enpirikoki behatu denez (aurrerago aztertuko dugu problema hau). Beraz, aztergai den gizatalde txikienetako batean 400 bat elkarrizketek osatzen dute unibertsoa. N ez da txikia.

Baldintza horiek guztiak betez gero, eta zehaztasun- eta konfiantza-maila horiek finkatuz gero, $n$ren kalkulua honela egiten da:

$$n \geq \frac{(z_{1-\frac{\alpha}{2}})^2 \cdot p \cdot (1-p) \cdot N}{(z_{1-\frac{\alpha}{2}})^2 \cdot p \cdot (1-p) + \delta^2 \cdot (N-1)},$$

edo, besterik gabe (Cochran, *Técnicas de muestreo*, CECSA, 4^a impresión, 1974, 110. orr.):

$$n_0 \geq (\frac{z_{1-\frac{\alpha}{2}}}{\delta})^2 \cdot p \cdot (1-p), \text{ eta } n = \frac{n_0 \cdot N}{n_0 + (N-1)} \cong n_0 \cdot \frac{1}{1+\frac{n_0}{N}}$$

- δ, zehaztasun-maila da; laginaren emaitzak jaso ondoren estimazioan onar daitekeen errore-tasa handiena. Hau aldez aurretik finkatuz gero, bermatuta dago estimazioak, α' konfiantza-maila jakin baterako, δ errore-tasa edo gutxiago izango duela.

- Ohar daitekeenez, ($z_{1-\frac{\alpha}{2}}$) banaketa normalean oinarritutako hurbilketatik datorren α' konfiantza-mailari dagokion balio normala da ($\alpha = 1-\alpha'$); azpiindizea korapilatsua bada ere, tradizioz, horrela adierazten da. $z_{1-\frac{\alpha}{2}}$ balioa erabiltzea bidezkoa izan dadin nk handia behar du izan, beraz ($n > 25$ edo).

- N oso handia denean $n$ren aldean, laginaren n tamaina n_0 bihurtzen da praktikoki, n_0 $n$tik gertu baitago ($\frac{n_0}{N}$ zatikia unibertsoaren finitutasunari zor zaion faktorea da). Kasu horretan Nk ez du formulan parte hartzen eta elkarrizketen multzoa infinitua balitz bezala erabil daiteke. Hipergeometrikoaren ordez, binomiala; laginketa itzulera gabekoa izan beharrean, itzuleraduna. Handia ez denean, ordea, Nk badu bere garrantzia.

Formula horretan, ordea, $p$ren balioa ez da ezaguna. Sorgin-gurpil bat gertatzen da. Alde batetik, lagina hartu nahi da $p$ren balioa ezagutzeko, eta bestetik laginaren n tamainaren handitasuna $p$ren menpe dago. Gurpil horretatik irteteko egiten dena zera da: litezkeen $p$ren balio guztietatik $n$ren balio handiena ematen duena aukeratu. Bestela esanda, erabakirik garestiena hartzen da (zenbat eta handiagoa izan n, orduan eta garestiago da lagina lortzea), baina edozein kasutan $p$ren estimazioaren bi kalitate-adierazleak (zehaztasuna eta konfiantza) errespetatu egiten dira.

n handiena eskatzen duen erabilera-maila, orokorrean, $p = \%50$ denekoa da ($max_{p\in(0,1)}\ p \cdot (1 - p) = 0.5 \cdot (1 - 0.5) = 0.25$) (ikus 16. irudia).

Bestelako informaziorik ez badago, $p$ren balioa %50 izan daitekeenez, azaldutako formulan balio



Irudia 16: $p \cdot (1 - p)$ formularen bilakaera, $p$ren arabera.

hori erabiltzen da kalkuluak egiteko (Cochran, *Técnicas de muestreo*, CECSA, 4^a impresión, 1974, 111. orr.):

$$n_0 \geq (\frac{z_{1-\frac{\alpha}{2}}}{\delta})^2 \cdot (\frac{50}{100} \cdot (1 - \frac{50}{100})) \equiv \frac{1}{4} \cdot (\frac{z_{1-\frac{\alpha}{2}}}{\delta})^2$$

Adibidez, nahi den konfiantza-maila $\alpha' = \%95(0.95)$ ($\alpha = 0.05, 1 - \frac{\alpha}{2} = 0.975$) bada, $z_{0.975} = 1.96$, eta zehaztasun-maila (errore-tasa) $\delta = \%2(0.02)$koa bada, orduan $n_0 \geq \frac{1}{4} \cdot (\frac{1.96}{0.02})^2 = 2401$, eta $\alpha' = \%99(0.99)$ bada eta $\delta = \%3(0.03)$, orduan $n_0 \geq \frac{1}{4} \cdot (\frac{2.575}{0.03})^2 = 1841.840$.

Laginaren n tamaina elkarrizketen unibertsoaren N tamainaren arabera erabakiko da, hau da, $\frac{n_0}{N}$ faktorearen arabera. Adibidez, $N = 400$ baldin bada $n \cong n_0 \cdot \frac{1}{1+\frac{n_0}{N}} = 1841.84 \cdot \frac{1}{1+\frac{1841.84}{400}} = 328.63$. Zenbait ezaditurentzat harrigarria bada ere, zehaztasun- eta eta konfiantza-maila horiek lortzeko elkarrizketen unibertsoaren %82a baino gehiago ($\frac{328.63}{400} = 0.8216$) hartu behar da laginean.

Formula horren ondorioz zenbait taula eraikitzen dira kalkuluak aldiro ez egitearren. Gehienetan balio hauentzat izaten dira taulak: $\alpha' = \%95, \%99$, $\delta = \%2, \%3, \%4, \%5$.

Taula horiek $p = 0.50$ edo $p = \%50$ kasurako (kasurik okerrenerako) kalkulatu dira, n handiena eskatzen duelakoan. Baina A eta B azpitaldeetako kide-kopuruak ezagutzen badira, kopuru horiek erabil daitezke $p$ren goi- eta behe-mugak ezartzeko, behin zehaztasun- eta konfiantzamailak finkatuta. Muga horiek baliatuta, laginaren tamaina beste modu batera kalkulatzen ahal da (Cochran, *Técnicas de muestreo*, CECSA, 4^a impresión, 1974, 88. orr.). Ondorioz laginketaren kostua merkatu egin daiteke.

Adibidez, $\delta = \%2(0.02)$ eta $\alpha' = \%95(0.95)$ izanda, $p \leq \%30$ izango dela ziurtasun osoa baldin badago, laginaren tamaina kalkulatzeko formulan, kasurik okerrena ez da 0.50, eremutik kanpo baitago, 0.30 baizik: $n_0 \geq (\frac{1.96}{0.02})^2 \cdot (\frac{30}{100} \cdot (1 - \frac{30}{100})) = 2016.84$, $p = 0.50$ kasuko $n_0 \geq 2401$ baino txikiagoa, alegia.

Hau da, 0.50 balioa ez baldin badago goi- eta behe-mugen artean, kasurik okerrena bi muga horietatik 0.50etik gertuen dagoena da (ikus 16 irudia).

Aztertutako eredu guztiak deterministak dira, nahiz hasierako datuak eta bukaerako erabilera-mailak proportzioen bitartez adieraziak izan. Behin baldintzak finkatuz gero, euskararen erabilera-mailaren balioa deduzitu egiten da. Errealitatea, baina, ez zaio halako eredu determinista bati zehatz-mehatz egokitzen. Eredu horiek erreferentzia-puntutzat har daitezke eta errealitatekoa horien artean kokatu.

Eredu horien arabera ele$B$idunen p_B proportzioa ezagutuz gero, p zein balioren artekoa izan



Irudia 17: $p$ren balio posibleen eremua, p_B proportzioen arabera.

daitekeen aurresatea badago: 17 irudian horiz margotu da eremu hori eta p_B abzisa duen edozein punturen ordenatua dago bere baitan. Adibideko $p_B = 0.55$ balioarentzat, $p$ren balioa 0.3025 eta 0.5990en artean dagoen edozein balio izan daiteke, betiere leialtasun-maila kontuan hartu gabe. Leialtasun-maila kontuan hartuz gero, behe-bornea txikiagoa izango da maila horren arabera (hori apalez margotua).

Laginaren tamaina kalkulatzeko kasurik okerrena, beraz, %0.50 da, aurreko bi mugen artean baitago. Baina, $p_B = 0.30$ balitz, bi mugak %9 eta %30 izango lirateke, eta, hortaz, laginaren tamaina kalkulatzeko kasurik okerrena 0.30 izango litzateke (0.09 eta 0.30 bi balio horietatik 0.50etik gertuen dagoena):

$$n_0 \geq (\frac{z_{1-\frac{\alpha}{2}}}{\delta})^2 \cdot (0.30 \cdot (1 - 0.30))$$

Beste adibide hau kontrakoa da, nolabait esateko: $p_B = 0.90$. Bi mugak muturreko bi kasuetan, %81.00 eta %98.78 dira, eta 0.50etik bietatik gertukoena 0.81 da. Laginaren tamaina kalkulatzeko formula, hortaz:

$$n_0 \geq (\frac{z_{1-\frac{\alpha}{2}}}{\delta})^2 \cdot (0.81 \cdot (1 - 0.81))$$

Gogoratu behar da bi balio hauek bi muturreko eredu jakinei dagozkiela: bata, gizatalde integratuko norbanako guztien artean komunikazioa orekatua denean (behe-muga, gorriz marraztutako kurba), eta bestea, gizataldea erdibituta dagoenean erabat, azpitalde bakoitzean erabateko komunikazioa dagoelarik (goi-muga, berdez). Behe-muga txikiagoa izango da leialtasun-maila ereduan sartuz gero, baita goi-muga ere leialtasun-maila ez bada $L = 100$ekoa nahiz hizkuntzataldeak 'itxiak' izan.

Eredu gehiago eraikiz mugak alda daitezke.

Laburbilduz: 0.50 proportzioa ez badago bi mugen artean, bi azpitaldeen arteko proportzioaren ezagutzak n txikiagotzen lagunduko du.

Adibide hauek direla-eta sortzen den galdera da Bren zein baliok laguntzen duten emandako formula orokorretik lortutako $n$ren tamaina txikitzen, eta zeinek ez. 18 irudiak laguntzen du erantzuna irudikatzen.

0.707 zenbakia $0.5 = p_B^2$ ekuazioaren soluzioa da ($\sqrt{0.5} \equiv 0.707$).



Irudia 18: $p$ren balioak kontuan hartuz, laginaren tamaina doitzeko hurbilpena.

19 irudiak erakusten du, azaldutako eredu matematikoak kontuan hartuta, $p$ren zein balio jarri behar den $n_0 = (\frac{z_{1-\frac{\alpha}{2}}}{\delta})^2 \cdot (p \cdot (1 - p))$ formulan laginaren tamaina kalkulatzeko:

1. $p_B < 0.50$ denean, $p = p_B$.
2. $0.5 \leq p_B < 0.707$ denean $p = 0.50$.
3. $p_B \geq 0.707$ denean $p = p_B^2$.

Laginaren tamaina kalkulatzeko arrazoibideetan ez dugu kontuan hartu, orain arte, *leialtasun-maila*. Faktore hau ere kontuan hartu behar dugu, ordea. Adibidez, $L = 70$ dela jakingo bagenu,



Irudia 19: $p$ren balioak, laginaren tamaina kalkulatzeko.

benetako $p_B$ren ordez $p_B \cdot \sqrt{\frac{70}{100}}$ kalkuluaren balioa jarri beharko genuke; esate baterako, benetako $p_B = 0.80$ izango balitz eta $L = 70$, kalkuluak $p_B = 0.67$ balioarekin egin beharko genituzke, eta $p_B = 0.40$ eta $L = 50$ balira, erabili beharrekoa: $p_B = 0.40 \cdot \sqrt{\frac{50}{100}} = 0.2828$.

n_0 kalkulatu ondoren, laginaren tamaina beste formula honen araberakoa da: $n = \frac{n_0 \cdot N}{n_0 + (N-1)}$. Formula horretako N balioa, dakigunez, elkarrizketen unibertsoko tamaina da. Nren balioa ezartzeko, binakako elkarrizketak baizik ez ditugu kontuan hartu orain arte. Baina, analisia osatzeko, beste guztiak zenbat diren ere jakin beharko genuke. 4 atalean landuko dugu gai hori.

Bestalde, egindako analisiak kalkulu-taulatan jaso ditugu. Taula horiek 5 atalean azaltzen dira.

3.6 Euskararen erabilera-mailaren estimazioa eta zehaztasun-maila

Erabilera-mailaren $\hat{p}$ estimazioa laginean neurtu den euskarazko elkarrizketen proportzioa ($\hat{p} = \frac{n_B}{n}$) da, eta laginaren n tamaina txikia ez den kasuetan, honela kalkulatzen da bere δ zehaztasun-maila edo 'errore-tasa' (Cochran, *Técnicas de muestreo*, CECSA, 4^a impresión, 1974, 88. orr.):

$$\hat{p} \pm \delta$$

$$\hat{p} \pm z_{1-\frac{\alpha}{2}} \cdot \sqrt{\frac{\hat{p} \cdot (1-\hat{p})}{n-1}} \cdot \sqrt{\frac{N-n}{N-1}} + \frac{1}{2 \cdot n}$$

Adibidez, $N = 200, n = 50, \alpha = \%95, \hat{p} = \%23$ bada:
$0.23 \pm 1.96 \cdot \sqrt{\frac{0.23 \cdot (1-0.23)}{49}} \cdot \sqrt{\frac{200-50}{200-1}} + \frac{1}{2 \cdot 50} = 0.23 \pm 0.11$

N oso handia denean $n$ren aldean, $\sqrt{\frac{N-n}{N-1}} \cong \sqrt{1 - \frac{n}{N}}$, populazioa finitua izateari zor zaion faktorea 1etik gertu dago. Nk beraz ez du formulan parte hartzen eta elkarrizketen unibertsoa <u>infinitua</u> bailitzan erabil daiteke.

Formula hauek ere banaketa normalean oinarritutako hurbilketatik datoz: nk ez du txikia izan behar ($n > 25$ erreferentzia-puntutzat hartzen da). n txikia denean banaketa hipergeometrikoan oinarritutako formulak erabili behar dira (Cochran, *Técnicas de muestreo*, CECSA, 4^a impresión, 1974, 88. orr.) (Chung, DeLury, 1950 %90, 95, 99, $N = 500, 250, 10000$, Lieberman, Owen, 1961, $N \leq 100$), edo bestela, hurbilketa gisa, banaketa binomialarenak (Fisher, Yates, 1957).

4 Unibertsoko elkarrizketa-kopurua

Elkarrizketa guztiak ez dira binakakoak. Batzuk hirunaka, beste batzuk launaka eta gehiagoka ere gertatzen dira. N bada elkarrizketen unibertsoaren tamaina eta N_2, N_3, N_4 binakako, hirunakako eta abarnakako elkarrizketak, hurrenez hurren, hauxe da bilatzen dena:

$$N = N_2 + N_3 + N_4 + \ldots$$

Orain arte N_2ri buruz aritu gara, baina aurreko formulak behar bezala erabili ahal izateko, N_3, N_4 eta abarrak ere kontuan hartu behar dira.

Errealitatera hurbiltzeko kasuistika hau uztartu egin behar da binakako elkarrizketei buruz esandakoarekin. N_2, N_3, N_4 eta abarren arteko erlazioak analitikoki ezar daitezke eredu matematiko bat eraikiz, edo enpirikoki.

Bide analitikoa bukatu gabeko ikertze-bidean dago oraindik. Dena dela, bide horren hasierako urratsak aurreraxeago azalduko ditugu, beharrezkoak izango baitira Nren balioa bornatzeko.

Bide enpirikoak gizatalde desberdinen sailkaketan eta behaketen erregulartasunean oinarritutako zenbakiak eskain ditzake. Bide enpirikoa zabala da eta gizatalde mota bakoitzean ezar litezke proportzio horiek, ez baitugu uste gizatalde guztietan azaldutako binakako, hirunakako eta abarnakako proportzioak berdinak izango direnik. Esan nahi dugu gizatalde txiki batean (adibidez, 30 bat pertsonak osatua) eta gizatalde handi batean (adibidez, 30000 bat pertsonakoa) gertatzen diren proportzioak ezin direla, besterik gabe, berdintzat jo. Bide honek bestelako azterketa bat eskatzen du, gizataldeak sailkatzean oinarrituko litzatekeena.

Txillardegiren eredu matematikoan azaltzen da gizatalde handietan binakako elkarrizketak %54.88 izaten direla, hirunakakoak %28.62, eta launakakoak %16.50[2]. Hortik aurrera, egoera arruntean, taldea banatu eta elkarrizketa bat baino gehiago sortzen omen da. Proportzio horiek $p_2 = \frac{N_2}{N}$, $p_3 = \frac{N_3}{N}$, eta $p_4 = \frac{N_4}{N}$ zatikien estimazioak dira. Txillardegiren proportzioak bide enpiriko baten emaitza dira, baina ez dugu uste proportzio horiek edozein gizatalderenak direnik.

Bide analitikoa bukatu gabe dugu oraindik, eta bide enpirikoak ugari dira. Nola erabaki N zenbatekoa den? Ataka honetatik irteteko muturreko kasuetara jo dezakegu eta Nren benetako balioa bornatu edo zedarritu. Ondorioz, laginaren n tamaina kalkulatu ahal izango da kasurik okerrenean, eta tamaina horrekin euskararen erabilera-maila estimatu. Nren ezagutza sakonagoak beharrezko laginaren tamaina fintzen lagunduko du, baita estimazioaren kalitatea ere.

Orain arte N_2z aritu gara, eta $N = \frac{N_2}{p_2}$ da. N_2ren inguruko zenbait hausnarketa eginda dago aurreko ataletan, baina p_2 binakako elkarrizketen proportzioaren inguruan ez, ordea. Soziolinguistikoki, agian, onar daiteke gizatalde guztietan $p_2 \geq p_3 \geq p_4 \geq \ldots$ dela. Honek esan nahi du, launakakoetatik areagoko elkarrizketak baztertzen baldin badira, $p_2 \geq \frac{1}{3} = 0.33 = \%33.33$ dela.

Kasurik okerrena, hau da, laginaren tamaina handiena eskatzen duena, $p_2 = \frac{1}{3}$ proportzioak ematen duena da. Hortaz, elkarrizketen unibertsoko tamainaren goi-borne bat $N \leq 3 \cdot N_2$ da. Komunikatzeko joera erabatekoa denean $N_2 = C(A+B, 2)$ denez, goi-bornea $3 \cdot C(A+B, 2)$ da:

$$N^* = 1.5 \cdot (A+B) \cdot (A+B-1)$$

[2]Proportzio hauek 1993ko eta 1997ko Euskal Herriko kale-neurketetan jasotako datuetatik finkatu ziren. Neurketa haietan behatutako udalerri gehienek 1000 biztanletik gora zituzten.

Adibidez, $A+B=25$ denean $N^* \sim 900$, eta $A+B=50$ denean $N^* \sim 3675$. $A+B$ handia denean, $N^* \sim 1.5 \cdot (A+B)^2$ oso zenbaki handia da ($A+B=30000, \quad N^* \sim 1349 \cdot 10^6$).

Nren balioaren ezagutza fintzeko asmoz, saiatu gara eredu matematiko baten bitartez adierazten elkarrizketen $p_2, p_3, p_4, \cdots$ proportzioen banaketa, komunikatzeko joera erabatekoa denerako. Proportzio horiek erabakitzeko bi joera hartu behar dira kontuan. Alde batetik, antzematen da elkarrizketa gehiago izan daitezkeela hirunaka binaka baino, konbinatoriaren aldetik begiratuta, eta askoz ere gehiago launaka hirunaka baino. Beste aldetik, esan daiteke zailagoa dela hirunakako elkarrizketa jakin bat suertatzea binakako jakin bat baino, probabilitatearen aldetik ikusita.

Esate baterako, $A+B=25$ denean, binakako 300 ($C(A+B,2)=\frac{1}{2} \cdot 25 \cdot 24$) elkarrizketa desberdin dago, 2300 ($C(A+B,3)=\frac{1}{6} \cdot 25 \cdot 24 \cdot 23$) hirunakako, 12650 launakako ($C(A+B,4)=\frac{1}{24} \cdot 25 \cdot 24 \cdot 23 \cdot 22$), eta abar. Guztira, 33554406 elkarrizketa izan daitezke ($N=2^{A+B}-(A+B)-1$). Elkarrizketa guztiei gertatzeko probabilitate berdina esleituz gero, esan nahiko genuke 10 lagunen arteko elkarrizketak askoz ere sarriagotan gertatzen direla binakakoak baino, eta eskarmentuak alderantzizkoa gertatzen dela esaten digu: maizena 2koa da, gero 3koa, gero 4koa eta abar. Honek esan nahi du elkarrizketa guztien probabilitateak ez direla berdinak.

Probabilitateak esleitzeko eredu matematiko bat lantzeari ekin diogu. Komunikatzeko joera erabatekoa denean, elkarrizketa batean parte hartzeko edozein norbanakok $\frac{1}{25}$eko probabilitatea baldin badu, binakako elkarrizketa jakin bat suertatzeko probabilitateak $(\frac{1}{25})^2 \cdot (\frac{24}{25})^{23}$rekin du proportziozko lotura bat, eta hirunakako jakin bat suertatzekoak $(\frac{1}{25})^3 \cdot (\frac{24}{25})^{22}$rekin; hau da, binakako elkarrizketa jakin baten probabilitatea 24 aldiz handiagoa da hirunakako jakin batena baino, eta 576 (24^2) aldiz handiagoa launakako jakin batena baino.

Bi ikuspegi kontrajarri horiek elkartu egiten dira probabilitate-banaketa binomialean oinarritzen den eredu matematiko batean, eta horren bitartez binakako, hirunakako, launakako eta abarnakako elkarrizketak zein probabilitaterekin suerta daitezkeen kalkulatzen dira:

$$p_k = C_{A+B} \cdot C(A+B,k) \cdot (\tfrac{1}{A+B})^k \cdot (1-\tfrac{1}{A+B})^{A+B-k} \quad k=2,3,\ldots,(A+B),$$
$$C_{A+B} = 1-(1-\tfrac{1}{A+B})^{A+B-1} \cdot (2-\tfrac{1}{A+B})$$

Probabilitateek, azken batean, elkarrizketen unibertsoko proportzioak adierazten dituzte.

Adibidez, $A+B=25$ denean ($C_{A+B}=0.2642$), taula honetan agertzen diren proportzioak lortzen direla egiazta daiteke:

p_2	p_3	p_4	p_5	p_6	p_7
0.7105	0.2270	0.0520	0.0091	0.0013	0.0001

$A+B$ handia denean froga daiteke (froga *Poisson*en prozesu batean oinarritzen da) limitetzat proportzio hauek har daitezkeela:

p_2	p_3	p_4	p_5	p_6	p_7
0.6961	0.2320	0.0579	0.0117	0.0019	0.0004

Beraz, ereduaren arabera edozein gizataldetan $N=\frac{N_2}{p_2} \sim \frac{C(A+B,2)}{0.70} \sim 1.43 \cdot C(A+B,2)$ izango da, eta kontuan hartuta $C(A+B,2) \sim \frac{1}{2} \cdot (A+B) \cdot (A+B-1)$ dela, $N \sim 0.71 \cdot (A+B) \cdot (A+B-1)$, hau da, lehen kalkulatutakoaren erdia baino pixka bat gutxiago. Adibidez, $A+B=25$ denean $N \sim 426$, eta $A+B=50$ denean $N \sim 1740$. $A+B$ handia denean $N \sim 0.71 \cdot (A+B)^2$ oso zenbaki handia da ($A+B=30000, \quad N \sim 639 \cdot 10^6$).

Nren halako tamaina ematen dugunean ez dugu elkarrizketa posibleen kopurua kalkulatu binakakoak, hirunakakoak, launakakoak eta abarnakakoak soilik batuz ($C(A+B,2)+C(A+B,3)+$

$C(A+B,4)+\ldots$), beraien probabilitateak aintzat hartuta konbinatuz baizik. Esan nahi dugu, adibidez $A+B=25$ denean, elkarrizketa-kopurua $300+2300+12650+\ldots$ batura dela erabaki ordez, 426 dela ondorioztatzen dugula. Elkarrizketa posible guztien kopurua batu baizik egingo ez bagenu, elkarrizketa guztiak probabilitate berdinekoak balira bezala tratatuko genituzke; aldiz, 426 emaitzara iristeko, binakakoak %71 direla (gutxi gorabehera), eta gainontzekoak %29 (hirunakakoak %23, launakakoak %5 eta abarnakakoak %1) direla ari gara kontuan hartzen.

Orain artekoa laburbilduz, esan daiteke komunikatzeko joera erabatekoa denean Nrentzako behe- eta goi-borneak hauek direla:

$$0.71 \cdot (A+B) \cdot (A+B-1) \leq N \leq 1.5 \cdot (A+B) \cdot (A+B-1)$$

Beste aldetik, ohartzekoa da proportzio hauek oraindik urruti samar daudela Txillardegik eta Isasik enpirikoki aurkitutakoetatik. Enpirikoki aurkitutako proportzioa ($p_2 = 0.5488$) erabiliz gero, $N \sim C(A+B,2) \cdot \frac{1}{0.5488} \sim 0.91 \cdot (A+B) \cdot (A+B-1)$, honako hauek izango lirateke Nren tamainak jarritako adibideetan: $A+B=25, \quad N \sim 547$; $A+B=50, \quad N \sim 2232$, eta $A+B=30000, \quad N \sim 819 \cdot 10^6$.

Muturreko $p_2 = \frac{1}{3}$ kasuak eta eredu matematikoak ematen ez dutenez enpirikoki jasotako datuen berri, argi dago, ereduan beste aldagairen bat sartu behar dela. Argi dago, halaber, ereduan hartu dugun komunikatzeko erabateko joerarena ez dela hipotesi erabat erreala.

Soziolinguistikoki, agian, onar daiteke gizatalde handietan p_2 handiagoa dela gizatalde txikietan baino, errazagoa baita gizatalde txikietan hirunakako, launakako eta abarnakako elkarrizketak burutzea. Honekin esan nahi dugu $p_2 = 0.5488$ proportzioa gizatalde handi batean lortu baldin bada, gizatalde txikiago batean p_2 txikiagoa izango dela, eta, ondorioz, N handiagoak izango direla proportzio horrekin kalkulatu direnak baino. Elkarrizketa burutze hori errazagoa izan daiteke gizatalde txikietan edozein norbanakok, batez bestean, gizataldeko gainontzeko norbanakoekin komunikatzeko gaitasun handiagoa duelako gizatalde handietan baino. Beste alde batetik, ordea, komunikatzeko gaitasuna erabatekoa ez denez N txikiagoa izango da. Nola uztartu kontrajarrita dauden bi joera hauek, N handiagoa eta N txikiagoa?

Komunikatzeko ahalmenak sartu beharra daude eredu matematikoan zenbaki enpirikoetara hurbiltzeko. Gai hau da azterbidean duguna oraindik, eta zabaldutako bide horretan ere jarraitzeko asmoa badugu, batez ere lortutako emaitzak nolakoak izan diren ikusita.

Komunikatzeko joera erabatekoa denean $N_2 = C(A+B,2)$ da, eta partziala denean, aldiz, aurreko atal batean azaldu denez, $N_2 = C(A+B,2) \cdot \frac{K}{100}$, K komunikatzeko ahalmena izanik. Beraz:

$$N = C(A+B,2) \cdot \frac{K/100}{p_2}$$

Adibidez, gizataldeen tamainak $(A+B)$, komunikatzeko ahalmenak $(\frac{K}{100})$ eta p_2 proportzioak emanda, honako taula hauek N elkarrizketa-kopuruak erakusten dituzte:

$p_2 = \frac{1}{3}$

	$\frac{K}{100}$			
$A+B$	%100	%80	%60	%0.05
25	900	720	540	
50	3675	2940	2205	
30000	$1350 \cdot 10^6$			674978

$p_2 = 0.5488$

	$\frac{K}{100}$			
$A+B$	%100	%80	%60	%0.05
25	547	438	328	
50	2232	1786	1340	
30000	$819 \cdot 10^6$			409500

Atal honen laburpen gisa zera esan daiteke: elkarrizketa guztiak kontuan hartuta, eta ez bakarrik binakakoak, kasurik okerrenean $N = 3 \cdot C(A+B, 2)$ hartu behar da, baldin eta beste zantzurik ez badugu kopuru hori errealitatera gehiago hurbiltzeko. Errealitatearen informazio zehatzagoa bagenu, 3 biderkagaiaren ordez $\frac{K/100}{p_2}$ faktore zuzentzailea aplikatu beharko genuke, $\frac{K}{100}$ eta p_2 proportzioen balioak errealitateko zantzuetara egokitu eta gero.

5 Taulak

Orain arte egindako azterketa matematikoari erabilera praktikoa eman nahian, taulatan laburbilduko ditugu eredu matematikoko adierazle garrantzitsuenak eta beren balioak eta korrespondentziak.

Gutxieneko δ zehaztasun-maila eta α' konfiantza-maila finkatuz gero, laginaren n tamaina erabakitzeko taulak elkarrizketen unibertsoaren Nren baitan daude. Baina populazioaren ezaugarriek lagundu dezakete tamaina hori txikitzen. Hain zuzen ere, zeregin horretan eragina duten bost ezagutza mota aipatu dira eredu honetan:

1. **Binakako elkarrizketen p_2 proportzioa**. Zenbat eta p_2 txikiagoa izan (hirunakako, launakako eta abarnakoekiko), orduan eta handiagoa izango da Nren tamaina. $p_2 \geq \frac{1}{3}$ dela jotzen da. Kasu enpiriko batean behatu da $p_2 = 0.55$.

